

Mikel Laboarekin bizitakoa kontatu du Mari Sol Bastidak

'Memoriak. Mikel Laboaren biografia bat' liburua argitaratu du musikariaren alargunak, Elkarrekin

Estibru Zabala

Memoriak. Mikel Laboaren biografia bat. Halaxe izena du Mari Sol Bastidak Elkarrekin argitaratu duen liburua. Nerabeak zirela ezagutu zuten elkar Laboak eta Bastidak, eta eta bizitza bat sortu zuten elkarrekin. Hala, 50 urte inguruan elkarrekin bizitako momentuak jaso ditu liburuan musikari ezagunaren alargunak.

Mikel Laboaren musika ibilbidea da kontakizunaren ardatza, baina, aldi berean, bikotearen bizipenak eta Euskal Herriaren historiaren zati bat jaso du Bastidak liburuan. «Memoriak irakurtzen ditudanean, bizitako hura berriro bizitzen dut», aipatu zuen Bastidak hunkituta, atzo goizean egindako aurkezpenean. Lagun ugari inguratuta egin zuen liburua aurkezpena, eta tartean, Antton Valverde musikaria, Iñaki Salvador pianista eta Bernardo Atxaga idazlea egon ziren.

Edonola, Bastidak aste honetan beste lan garrantzitsu bat du egiteko. Izan ere, bihar, 20:00etan, Adarra Saria jasoko du Viktoria Eugenia Antzokian, bere senarra zenaren partez. Donostia Kulturak lehen aldiz banatuko du saria, Musikaren Europako Egunean, eta Laboaren musika ibilbidea go-raipatuko du. Sari ematean emaldi ugari gozatzeko aukera egongo da: Delorean, Iñaki Salvador, Josetxo Silguero, Ainara Ortega eta Kukai dantza taldea.

Beti ondoan

Laboa 2008ko abenduan hil zen, 75 urte zituela. Medikuntza ikasi zuen, baina musikari eskaini zion bere bizitza, eta euskal musika garaikidean izen oso entzutetsua izan da. Beti ondoan izan zuen Mari Sol Bastida. Beraz, zein ego-kiago bere memoriak idazteko.

Azken batean, elkar ezagutu eta elkarrengandik urrundu behar izan zuten tartea jaso du Bastidak bete memorieta; 1950 eta 2008 urteen artean gertatutakoa bereziki, baina protagonisten haurtzaroko kontakizunak ere jaso ditu.

Hirurogeiko hamarkadan oroitzen oharkabean jasotzen hasi zela azaldu zuen Bastidak, eta bereziki, gordeta zituén hiru elementu aipatu zituen: Publiko aurrean kantatzeko baimena eman zion karneta, lau abesti herrikoiekin kaleratu zuen lehen

diskoa eta Zeruko Argian egin zioten elkarrizketa bat. Hala, gordetako dokumentu eta agiriekin, eta bere oroitzapenekin, testua idazten hasi zen 2010ean, eta ikasurte batean bukatu zuen. Ordu-tik, ordea, buelta asko eman dizkio idatzitakoari.

Antxiñe Mendizabal editorearen hitzetan, «maitasunetik, mirespenetik eta emozioetik» idatzi du Bastidak. Juan Kruz Igerabide idazlearen hitzetan, berriz, testuak «hunkitu» egin zuten, eta dokumentu historikotzat jo du. Liburuaren erdialdean, gainera, hainbat argazki gehitu dituzte, dokumentu gisa; batzuk ezagunak, beste batzuk ez hainbeste.

Berez gazteleraz idatzi du liburua Bastidak, ez baitzuen bere burua hori guztia euskaraz kontatzeko gai ikusten. Duela lau hilabete liburua argitaratzearen inguruko zalantzak izan zituela ere onartu zuen Bastidak: «Bel-

durra sartu zitzaidan, ea lan hori guztia argitaratzea ongi zegoen pentsatzen hasi nintzenez. Lagun askok aurrera egitera bultzatu ninduten».



Beldurra sartu zitzaidan, ea lana argitaratzea ongi zegoen pentsatzen hasi nintzenez»

MARI SOL BASTIDA
Mikel Laboaren alarguna

Azkenean, bi arrazoi izan ditu liburua argitaratzeko; batetik, garrantzitsua dela edozein gizarteren iragana oroitu izatea, eta lan horretan lagungarria gerta litekeela, eta bestetik, oso ongi pasa duela liburua idazten, eta irakurtzen dituen bakoitzean momentu haiek berriro bizitzen dituela.

• ezabala@hitza.info



Mari Sol Bastida, atzo, liburuarekin. E.ZABALA

Lehen hitza,
Udalean ere,
euskaraz



udalean ere
euskaraz



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua

